



8. ATALA: PILOTUA

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiera fasea	1. Jarduera	Zer dakigu pilotuen inguruan	Pilotuen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	I. Eranskina: Audioa Ordenagailua Bozgoragailuak
	2. Jarduera	Bai, esan? Pilotuak	Pilotuen lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Hegaldiaren aurretik, zer?	Hegaldi bat egin ahal izateko bete beharreko baldintzak identifikatzea.	
Ekoizpen fasea	4. Jarduera	Lasterketa prestatu	Lasterketarako pista prestatzea.	II. Eranskina: Eskulan ereduak. Pista egiteko materiala (papera, zelo...)
	5. Jarduera	Gu pilotu!	Hegazkin lasterketa egitea.	III. Eranskina: Hegazkinak nola egin. IV. Eranskina: Eskulan ereduak. Hegazkinak egiteko materiala (papera, zelo, errotulagailuak...)

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako hegaldiak aitzakitza hartuta, pilotuen mundua ezagutu eta ikasle bakoitzak hegazkin bat eginez ikasgelako hegazkin lasterketa antolatuko dugu.
- Espezifikoak
 - Hegaldi baten ezaugarriak ezagutzea.
 - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak lantzea.
 - Hegazkin lasterketa antolatzea.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.
 - Irudimena baliaturik norbere hegazkinak sortzea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea izango da gela guztiaren artean hegazkin lasterketa bat antolatzea, non ikasle bakoitzak bere hegazkina sortu eta probatuko duen.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeko proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu pilotuen inguruan?

- Helburua: Pilotuen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartuko gara eta ikasleei eseri eta begiak isteko eskatuko dizkiegu. Behin ikasle guztiek begiak itxita dituztela ziurtatuta, soinuen bidez hegazkin baten kabinan gaudela simulatuko dugu. Behin esperientzia amaituta, asanbladan eseri eta entzundako horren inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer entzun dugu? Non entzun genezake hori? Zein lanbidetan entzun genezake audioan entzundakoa? Ezagutzen duzue lanbide horretan lan egiten duen norbait?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Askotain ez baitugu pentsatu ere egiten gure ekintzen zein plazerren atzean dagoen lana. Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.

2. jarduera → “Bai, esan? Pilotuak”

- Helburua: Pilotuen lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkasteen jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu.

Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
 - **Aireko eta lurreko garraiatzeko moduetan antzekotasunak zein desberdintasunak aurkitu genitzake.**
 - Antzekotasunak:
 - Hegazkina pilotatzeko errepide batzuk jarraitu behar dira.
 - GPS edo mapa fisikoak erabili daitezke norabidea jakiteko.
 - Desberdintasunak:
 - Bolantearen erabilera. Bolantea zuregana gerturatzean hegazkinak gora egiten du eta urruntzean aldiz behera.
 - Azkarrago edo motelago joateko botoiak erabili behar dira.
 - Botoi guztiak bikoiztuta daude, zerbait gertatu ezker arazoari aurre egiteko baliabideak edukitzeko.
 - Kaskoak erabili daitezke pilotatzeko unean. Kaskoak elkarrekin hitz egiteko erabiltzen dira; bidaiariekin zein kontrol torrearekin hitz egiteko.
 - **Hegaldi seguru bat egiteko jarraitu beharreko urratsak:**
 - Hegaldiaren berri eman behar da kontrol gunean, hauek beti jakin behar dute non gauden, hegaz egiteko asmorik dugun...
 - Kontrol guneko irizpideak eta jarraibideak jarraitzea garrantzitsua da.
 - Hegaldian zehar motorra gelditu egiten bazaigu, martxan jartzen saiatu behar gara, hori lortu ezean, zelai bat aurkitu eta bertan lurreratzea komeni da.
 - Hodei bat zeharkatzerakoan hegazkina mugitu egiten da (haize desberdinen ondorioz) eta ez da ezer ikusten. Hodeiaren forma, tamaina eta koloreak hodeiaren arriskuaren inguruko informazioa emango digu.
 - **Pilotu izateko asko ikasi behar da, baita hainbat azterketa egin ere. Gustuko lekuan aldaparik ez dagoenez, gustuko ikasketek, ekintzek, prestakuntzek... ekarriko dizkiguten esfortzuek merezi izango dute.**

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

- **3. jarduera** → **Hegaldiaren aurretik, zer?**

- Helburua: Hegaldi bat egin ahal izateko bete beharreko baldintzak identifikatzea.
- Jarduera honetan ikasleak taldeetan batuko dira eta pilotu batek hegaldiari ekiteko jarraitu beharreko urratsak zerrendatuko dituzte.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzu urratsen zerrenda eta ikasleekin zerrenda egiteko txantiloia.

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

4. jarduera → Lasterketa prestatu

- Helburua: Hegazkin lasterketa egiteko pista bat sortzea.
- Jarduera honetan gure lasterketari forma emango diogu. Horretarako, lehenik eta behin lasterketako pista zein izango den pentsatuko dugu, irteera eta helmuga puntuak markatu, ikasgelako puntu horiek itxuraldatu... finean, gure pista propioa sortuko dugu.
- Pista egiteko proposamenak:
 - Lasterketarako pistak irteera eta helmuga izan dezake eta lasterketaren helburua hegazkina ahalik eta hurrunen izatea izan daiteke.
 - Paper bat jarri genezake gelako paretara batetik beste paretara. Paperean zuloak egin genezake eta zulo bakoitzari puntuazio bat eman. Lasterketaren helburua ahalik eta puntu gehien lortzea izango da adostutako jaurtiketa kantitateetan.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzue pista sortzeko eskulan ereduak.

5. jarduera → Gu pilotu!

- Helburua: Norberak bere hegazkina sortzea.
- Jarduera honetan ikasle bakoitzak bere hegazkin propioa sortuko du lasterketan parte hartu ahal izateko. Horretarako, bideo batzuk ikusiko ditugu ikasleek paperezko hegazkinak nola egin ikas dezaten. Hegazkinak apaintzeko tartea ere emango dizkiegu ikasleei.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzue hegazkinak egiteko tutorialak eta eskulan ereduak.

Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, 6.jarduera egiteko irakasleak abesti baten letra banatuko dizkiete ikasleei. Kantu horretako letra desordenatuta egongo da eta ikasleek taldeka abestiko hitzak ordenatu beharko dituzte abestira erreala lortzeko. Ziklo altuagoetan berriz, sortutako abestia ikasgelara mugatu beharrean, guraso edo eskolako gainontzeko ikasle zein irakasleentzako kontzertu bat antolatzea bideratu daiteke saioa. Kontzertuan sortutako abestia abesteaz gain, ikasleen gustuko abestiak bersionatu daitezke.


KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

I. Audioa

- Hasierako jarduerarako audio proposamena:
<https://www.youtube.com/watch?v=WMApCMp6IBY>

II. Pista egiteko eskulan ereduak



KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

III. Hegazkina nola egin



Hegazkinak nola egin ikasteko tutoriala: <https://www.badok.eus/euskal-musikak/>


KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

IV. Hegazkin egiteko txantiloia


Egin zure hegazkina eta bidali zure mezua:

- 1.- Moztu marra loditik.
- 2.- Idatzi zure mezua marra urdinen gainean.
- 3.- Tolestu gidoi-marretatik. Lehenengo erdikotik eta gero besteetatik.
- 4.- Aireratu.



Egin zure hegazkina eta bidali zure mezua:

- 1.- Moztu marra loditik.
- 2.- Tolestu gidoi-marretatik. Lehenengo erdikotik eta gero besteetatik.
- 3.- Aireratu.



POTXetaLOTX
AIREPORTUAN



© EITB MEDIA

